

¿Zertako jaunak egin zituen gure mendiyak,  
 Aritz aldenez, burni gogorrez chit estaliyak,  
 Ezpada beti, ¡beti! zitezen bizi lokabe,<sup>1</sup>  
 Uztarri beltzik, araugaberik<sup>2</sup> sentitu gabe?...  
 Beraz, alperrik dira sayatzen Euskal-etsaiyak,  
 Berdindu nairik lur laubak eta mendi goitiyak,  
 Alperrik dabiltz oñpera nairik *Zuzentasuna*,  
 Beltzez estali nairikan, aren argitasuna....  
 Eguzkiya-re, laño tartean, ezkututzen da,  
 Gure begiyen ikuskeratik aldentutzen da;  
 Baña ¿nork oi du etsaiya laga menderaturik?  
 ¿Nor agertzen da gure gañean nagusiturik?...  
 Ez odei beltzak; ez gau-itzalak, ez illunpeak;  
 Baizik eguzki goiyaren argi urrez beteak,  
 Dariyotela poz-atsegiña, gozotasuna,  
 Dutelarikan urrun biraltzen tristetasuna.

.....  
 ¡Gozatu bedi, bada, gaur dezun atsekabea,  
 Gozatu bedi! zergatik, nola gau beltz tritea.  
 Bukatutzean, datorren eder egun-sentiya,  
 Etorriko dan zugar lokabe maitagarriya,  
 Bere asnaseaz aritz legorrak indarturikan,  
 Mendi soilduak belar ederrez apaindurikan.

K. ECHEGARAY-KOAK.

1884-an.

---

## Uztaren ¡21-ARI!

Amak denbora batean piñsoialetan bildzen ninduen amorioarekin,  
 bildzen du gaur nere Euskal-biotza egun artan argustu<sup>3</sup> zan gure  
 Lege-Zarra-ren oroitzak.

Euskaldun egiazkoak baldin bagera, eguzki pozgarri ark argituko-  
 ditu oraindik gure echeak.

Ezpagerá: ¡negarretan itoko algerá!

ANTONIO ARZÁC.

1884-ean.

---

(1) Libre.—(2) Tiranía.—(3) Argustu=eclipsar, de argi ustu.